

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000004664

Espediente-zenbakia: 2025/IDA_DEK0637

**SANTA EUFEMIA AZOKAKO POSTUEN 2025 URTEKO OINARRIAK ETA
ERANSKINAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA, ONDARE
PUBLIKOAREN ERABILERA BAIMENTZEKO.**

Xedea

Santa Eufemia azokako postuen 2025 urteko oinarriak eta eranskinak onartzea eta deialdia zabaltzea, ondare publikoaren erabilera baimentzeko.

Aurrekariak

Lehenengoa: Udalak interesa dauka irailaren 16an baserritarren eguna ospatzeko, Bermeon 9 auzo eta baserri asko daudelako. Bermeo, herri arrantzalea izan arren, baita baserritarrarena da.

Bigarrena: Santa Eufemia azokako postu kopurua mugatuta da eta eskatzaile kopurua handiagoa da. Horregatik, beharrezkoa da aukeraketaren irizpideak finkatzea, oinarrien bidez.

Hirugarrena: Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak oinarrien proposamena egin du, Eusko Jaurlaritzak 2017 urtean argitaratutako "Euskadin Tokiko azokak eta feriak antolatzeke Gida"ren gomendioak jarraituz.

Laugarrena: 2025 urtean, oinarriak egokitu dira, zehatzagoak izateko.

Bosgarrena: 2025eko uztailaren 10ean, Kultura teknikariak justifikazio txostena egin du.

Seigarrena: 2025eko uztailaren 10ean, Idazkaritza AOT-k txosten juridikoa egin du.

Argudioak

Lehenengoa: 2025eko irailaren 16an, Santa Eufemia azoka ospatuko da eta Lameran kokatuko da, BBK-ko azpiegiturarekin eta enpresa batek bitartekari lanak eginez.

Bigarrena: Jabari publikoaren gaineko baimenei, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen 33/2003 Legea –oinarrizko lege moduan barne hartzen



dituen artikuluetan soilik- eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 EDa aplikatzen zaie.

Hirugarrena: 2016ko abuztuaren 10ean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Kalek kaleko salmenta Bermeon arautzen duen Ordenantzak xedatzen duena bete beharko da bai eskaria egiterakoan, baita baimena ematerakoan ere.

Laugarrena: Baimenaren oinarriak onartu eta esleitzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua arabera, alkateari dagokio.

Erabakia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: ondare publikoaren erabilera baimentzeko, 2025 urteko Santa Eufemia azokako postuen oinarriak eta eranskinak onartzea eta deialdia zabaltzea.

BIGARRENA: erabaki hau eta dagozkion oinarrien iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bermeoko Udaleko web orrian oinarriak argitaratzea.

HIRUGARRENA: erabaki hau Baitxe Innoba SLri jakinaraztea.

LAUGARRENA: hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90013A52B00P6A8J1P1K2D8

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 17/07/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 17/07/2025 11:22:43

EXPEDIENTE ::
2025IDA_DEK0637

Fecha: 27/06/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

